

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

**229/2026 Foru Agindua, maiatzaren 13koa. Adieraztea interes publikokoa dela Asier López Elorrietak sustatutako proiektua, txakurtegi bat eraikitzeko Bernedoko udalerriko 6 poligonoan, bere jabetzako 219 lurzatian, zeina lurzoru urbanizaezin gisa sailkatuta baitago**

Asier López Elorrietak udal lizentzia eskatu dio Bernedoko Udalari, txakurtegi bat eraikitzeko udalerrri horretako 6 poligonoan, bere jabetzako 219 lurzatian, zeina lurzoru urbanizaezin gisa sailkatuta baitago.

Udal horrek espedientea bidali du, eta eskatu du izapidetu dadila proiektuaren interes publikoaren adierazpena, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 euskal Legeak 28.5.a) artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Espedientean jasota dagoenez, proiektuaren xedea da txakurtegi bat instalatzea sustatzailearen txakurrak zaintzeko. Lurzatiak 0,711 ha-ko azalera du, guztira, nahiz eta, aurkeztutako planoen arabera, proiektuak 1.210 m<sup>2</sup> hartuko dituen haren ipar-ekialdeko muturrean. Sustatzaileak bost espaziotan banatu nahi du azalera hori, eta horietan poliuretanozko txakurtegiak jarriko ditu; espazio horietako bitan obra etxolak daude dagoeneko, eta funtzio horretarako baliatuko dira. Espazio guztiak, bai eta kanpoko esparrua ere, 2,25 m-ko altuerako maila sare elektrosoldatuz hesituta egongo dira, txakurrak barruan askatasunez mugi daitezzen ihes egiteko arriskurik gabe, eta, aldi berean, fauna basatia sar ez dadin (orkatzak, basurdeak...); txakur etxola guztiak indibidualak izango dira, eta txirbil ohe bana izango dute. Sakagailu edontziak izango dituzte, txakurrek behar duten ur guztia izan dezaten, bai eta elikagaia ere, toberetan emango baitzaie. Finkako lurra hareatsua da, eta horrek lokatza sortzea saihesten du; gainera, haize nagusietatik babestuta dago, eta hosto erorkorreko zuhaitzek itzal nahikoa ematen dute udan tenperatura altuak saihesteko, eta horrek animalien ongizatea ekarriko du.

Txostenean, udal arkitektoak adierazten du lurzattia lurzoru urbanizaezinean dagoela, J.9 zona gisa kalifikatutakoan: nekazaritza eta abeltzaintza eremua eta landazabala, trantsizioko landa paisaia, eta paisaia bikainen eta berezien baldintza gainjarria duela. Jarraian, esaten du zona horretan, indarrean dagoen Bernedoko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren 141. artikuluan xedatutakoaren arabera, onura publikoko eta gizarte intereseko eraikinak onartuta daudela, nahiz eta eskatzen den eraikin horiek 132.1.b) artikuluan xedatutakoaren arabera izapidetzea, artikuluko horrek zona jakin batzuetako erabilera batzuetarako baldintza espezifikoa arautzen baititu. Hala, bada, 132. artikuluko horrek honako hau xedatzen du eraikin horiei dagokienez: «nekazaritza eta basozaintzako jardueraren gainean sortutako eraginaren analisisia egin beharko da, eta neurri zuzentzaileak hartu, EAEko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialaren I. eranskinek 1. apartatuan jasotako Nekazaritza Arloko Afektazioaren Ebaluazio Protokoloan (AAEP) jasotzen den moduan».

Nekazaritzako eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialak (LPS) onura publikoko eta gizarte intereseko eraikinak eta instalazioak definitzen ditu 42. artikuluan, eta horien artean jasotzen ditu gune zoologikotzat hartzen diren establezimenduak, betiere jarduera nagusiek landa lurzoruan kokatzeko beharra justifikatzen badute, eta berriaz aipatzen ditu txakurtegiak.

Gune zoologiko horiei dagokienez, LPS berak ezartzen du establezimendu horien jarduera nagusiak Eusko Jaurlaritzaren azaroaren 15eko 444/1994 Dekretuaren mende daudela; dekretu hori Euskal Autonomia Erkidegoko gune zoologikoen baimen, erregistro eta kontrolari buruzkoa da. Dekretu hori indarrean dagoen apirilaren 11ko 81/2006 Dekretuak ordezkatu du, eta honela dio 3.1 artikuluan:

«Jardunean hasi aurretik, gune zoologikoek eskumena duten foru organoek emandako administrazio baimen egokiak eduki beharko dituzte, aurretiazko eta jardunean jartzeko baimenak, alegia. Aurretiazko baimenaren bidez, aurkeztu den proiektuak dagozkion baldintza materialak eta funtzionalak betetzen ote dituen ikusi nahi da; beraz, hala behar denean, neurri zuzentzaileak eduki beharko ditu. (...)».

Espedientean jasota dago Arabako Foru Aldundiko Abeltzaintza Zerbitzuak 2026ko urtarrilaren 29an emandako alde aurreko baimena.

Azaldutako aurrekariari honako oinarri juridiko hauek aplikatu behar zaizkie:

Lehenengoa. Lurralde Oreka eta Lurralde Antolamenduaren Sailak eskumena du aztergai den espedientea ebazteko, bat etorritik Arabako Foru Aldundiaren sailen egitura 2023-2027 legegintzaldirako zehazten duen Diputatu Nagusiaren ekainaren 30eko 152/2023 Foru Dekretuak eta Lurralde Oreka eta Lurralde Antolamenduaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onesten duen Foru Gobernu Kontseiluaren urtarrilaren 30eko 1/2024 Foru Dekretuak xedatutakoarekin.

Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 13.1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lurralde eta hirigintza antolamenduak urbanizazioaren bidez eraldatetik babestu duen eta landa egoeran dagoen lurzoruan, «salbuespen gisa eta lurralde eta hirigintza antolamenduaren legerian aurreikusitako prozedura erabiliz eta baldintzak betez, zilegi izango da berariazko jarduera eta erabileraren batzuk legitimatzea, baldin eta interes publikoa edo soziala badute, landa antolamenduari eta garapenari ekarpenak egiten badizkiote edo landa ingurunean kokatu beharrekoak badira».

Bat etorritik 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan ezarritakoarekin, lurzoru urbanizaziaz ezingo dira gauzatu «aplikatzeko den arloko legeriak edo lurralde antolamenduak interes publikoko deklaratuak zuzkidura, ekipamendu eta jarduerak berariaz ezartzeko jardunak baizik, zeinak, betiere, dagozkion foru diputatuak ebazpen bidez deklaratu behar baititu interes publikoko, hogege eguneko jendaurrean edukitzeko izapidea bete ondoren».

Bigarrena. Martxoaren 27ko 183/2026 Foru Aginduaren bidez, hasierako onespina eman zitzaion espedienteari, eta ALHAO argitaratzen zenetik aurrera 20 eguneko jendaurrean egoteko aldia hasi zen. Espedientea 2026ko apirilaren 8ko ALHAOn (40. zenbakia) argitaratu zen. Horretarako emandako epean ez da inolako alegaziorik aurkeztu.

Hirugarrena. Proiektuaren interes publikoari dagokionez, Nekazaritzako eta Basogintzako Lurralde Plan Sektoriala aplikatu behar da. Plan horren III. kapituluko 5. atalean («Lurzoruaren erabilerak eta eraikuntza erabilerari lotutako jarduerak»), honako hau ezartzen da 42. artikuluan: «Erabilerak publikoko edo gizarte intereseko eraikin eta instalazioak.

1. Komunitate ekipamendu publiko edo pribatuarentako eraikuntzak eta instalazioak: ematen dituzten zerbitzuak, beren izaera eta ezaugarriengatik, nahitaez landa ingurunean kokatu behar badira, et, betiere, aurrez erabilgarritasun publikoa edo gizarte interesa dutela adierazi bada.

2. Honako modalitate hauek sartzen dira:

a) Gune zoologikoak: establezimendu horien jarduera nagusiak Eusko Jaurlaritzaren azaroaren 15eko 444/1994 Dekretuari lotuta daude; dekretu hori Euskal Autonomia Erkidegoko gune zoologikoen baimen, erregistro eta kontrolari buruzkoa da. Erabilerak hau soil-soil kontuan hartzen da erabileraren jarduera nagusiek landa lurrian kokatu beharra justifikatzen badute (animaliak sendatzeko zentroak, [...], txakurtegiak, [...]). Beraz, hiri lurzoruan jar daitezkeenak (txori dendak, animaliak saltzekoak, eta abar) ez dira sartzen erabilerak honetan [...].».

Gune zoologikoei buruzko apirilaren 11ko 81/2006 Dekretuak indargabetu egin zuen 444/1994 Dekretua, Animaliak Babesteko urriaren 29ko 6/1993 Legearen 19. artikulua aplikatuz emana, zeina gaur egun indargabetuta baitago Etxeko Animaliak Babesteari buruzko ekainaren 30eko 9/2022 Legearen bidez; lege horren azken helburua, 1.2 artikuluan xedatutakoaren arabera,

honako hau da: «Animalien babes eta ongizate maila egokiak lortzea, izaki bizidun diren aldetik, sentikortasun fisiko eta psikikoa eta behar etologikoak dituztenak. Horretarako, haienganako begirunea eta errespetua bultzatuko dira».

Aipatutako 81/2006 Dekretuaren 1. artikulua honako hau xedatzen du:

«Gune zoologikoa da animaliak edukitzeko, mantentzeko, hazteko eta/edo saltzeko dauden zentro, establezimendu eta instalazio guztiak, berdin dio hori gunearen jarduera nagusia den eta merkataritzako helburuak dituen edo ez».

Eta artikulua horren 2.b) atalean, honako hau jasotzen da gune zoologikoen artean: «Lagun egiteko etxe abereak dituzten guneak», eta berariaz aipatzen dira «urtebetetik gorako 10 txakur edo gehiago dituzten txakurtegiak eta/edo 20 m<sup>2</sup>-tik gorako azalerako instalazioak dituzten horiek».

9/2022 Legeak ia modu berean definitzen ditu zentro zoologikoak: animaliak hartzen, mantentzen, hazten edo salerosten dituen zentro, establezimendu edo instalazio oro, jarduera nagusia hori izan ala ez eta salerosteko helburua izan ala ez. Definizio horretatik kanpo geratzen dira harrera etxeak eta albaitaritza zentroak, bai kontsultak, bai ospitaleak edo klinikak ere.

Aztertutakoa ikusita, interes publikoa proiektuaren izaerak ematen du, eta justifikatuta dago instalazioa kokaleku zehatz horretan kokatu beharra, azpiegituraren berezko ezaugarriak kontuan hartuta.

Horrenbestez, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Bat etorri Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 28.5.a) artikuluan xedatutakoarekin, adieraztea interes publikokoa dela Asier López Elorrietak sustatutako proiektua, txakurtegi bat eraikitzeko Bernedoko udalerriko 6 poligonoan, bere jabetzako 219 lurzatian, zeina lurzoru urbanizaezin gisa sailkatuta baitago.

Bigarrena. Adierazpen horrek ez du kentzen proiektua gauzatu baino lehenago dagokion udal lizentzia lortzeko betebeharra, ez eta horretarako udal erabakiaren edukia aurretik ezartzen ere.

Hirugarrena. Administrazio bidea amaitzen duen ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da EAeko Auzitegi Nagusiko jurisdikzio horren salan, bi hilabeteko epean, edo, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua jarri ahalgo zaio egintza eman duen organoari berari, hilabeteko epean, bat etorri Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoarekin. Interesdunek egoki jotzen duten beste edozein errekurtsu ere aurkez dezakete.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko maiatzaren 13a

*Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatua*

**LAURA PÉREZ BORINAGA**